<table>
<tr><td colspan="2"><u>OHIKO OSOKO BILKURA</u> / <u>PLENO ORDINARIO</u><br><br><u>2022KO MARTXOAREN 28A</u> / <u>28 DE MARZO DE 2022</u></td></tr>
<tr><td colspan="2">BERTARATUAK / ASISTENTES</td></tr>
<tr><td><u>IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL</u><br><br>D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna</td><td><u>ALKATE-UDALBURUA / ALCALDE-PRESIDENTE</u><br><br>D. Jon Iraola Iriondo jauna PSE-EE (PSOE).<br><br><u>ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE</u><br><br>D. Alberto Albistegui Zamacola jauna PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna PSE-EE (PSOE).<br>Dña. María Isabel Larrauri Arriaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Ander Curiel Ayuso jauna PSE-EE (PSOE).<br><br><u>ZINEGOTZIAK / CONCEJALES</u><br><br>Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Alberto de la Hoz Gorriti jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Mª Mercedes Garate Larrañaga andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Mª Elena Ibañez Anuncibay andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Jon Pérez Illana jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Amaia Albizu Llubia andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (EH BILDU).<br>Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (EH BILDU).<br>Dña. Miren Baranguan Yarza (EH BILDU).<br>D. José Ángel Gimare Escolar jauna (EH BILDU).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (EH BILDU).<br>Dña. Mª Isabel Fernández Pejenaute andrea (ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS / EZKER ANITZA – IU/ EQUO BERDEAK).</td></tr>
</table>

**Akta hau osoko bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:**

**La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:**

http://eibar.videoacta.es?pleno=20220328&instante=97

**Eibarko udaletxearen Batzar Aretoan, 2022ko martxoaren 28an, arratsaldeko zazpiak izanik, Udalbatza bildu zen ohiko bilkuran**, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

**En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a las diecinueve horas del día 28 de marzo de 2022, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal**, formado por las señoras y señores anteriormente mencionados/as.

**Alkatea-Udalburu jaunak** bilerari hasiera eman dio eta aztertu da honako

El **Sr. Alcalde-Presidente** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

## GAI-ZERRENDA

## ORDEN DEL DÍA

**1. Udalbatzak 2022ko otsailaren 17 eta 28an egindako bilkurei dagozkion akta-zirriborroak onartzea.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

**1. Aprobación de los borradores de actas correspondientes al 17 y 28 de febrero de 2022.**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 6 - EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

2022ko otsailaren 17 eta 28an osoko bilkurari dagozkion aktak bozkatu ondoren, onartu egin dira, eta aktatzat hartu dira.

Sometidos a votación los borradores de actas correspondientes al 17 y 28 de febrero de 2022., quedan aprobadas, siendo elevadas a actas.

**2. Alkatetzak emandako ebazpenen kontu-ematea.**

**2. Dación de cuentas de Resoluciones de Alcaldía.**

Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 234. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, **Alkate-Udalburu jaunak** azken osoko bilkura arruntetik hona emandako Alkatetzaren ebazpenen edukiaren berri eman du, akta honi I. Eranskinean erantsi zaizkionak.

De acuerdo con lo previsto en el artículo 234 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, el **Sr. Alcalde-Presidente** da cuenta del contenido de las Resoluciones de Alcaldía dictadas desde la última sesión plenaria ordinaria, que se adjuntan al presente acta como Anexo I.

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

**3. Alkatetzaren proposamena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Bigarren Salak 951/2020 prozedura arruntean emandako epaiari buruzkoa.**

**3. Propuesta de Alcaldía sobre la sentencia dictada por la Sección Segunda de la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el procedimiento ordinario 951/2020.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 9 - PSE-EE (PSOE).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 12 - Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salako Bigarren Sekzioak 2020ko uztailaren 27ko Udal Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren inguruan Promociones Cesilur SLk jarritako 951/2020 administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren inguruan eman duen epaiaren berri eman da. Erabaki hark 112.01 Sostoatarren 14 jarduketa isolatuaren Xehetasun azterlanaren behin betiko onespena ukatu zuen.

Epai horrek baiesteko izaera du eta Udalbatzak hartutako erabakia deuseztzat ematen du, Xehetasun Azterlana behin betiko onartutzat jota, Eibarko Udaleko Hirigintza, Obra eta Ingurumeneko Lan Batzordeak 2020ko uztailaren 21ean onartutako baldintzetan.

Prozedura honetan Eibarko Udalaren

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 9 - PSE-EE (PSOE).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 12 - Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

Se da cuenta de la Sentencia dictada por la Sección Segunda de la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el recurso contencioso-administrativo 951/2020 interpuesto por Promociones Cesilur, S.L., con relación al acuerdo del pleno municipal, de 27 de julio de 2020, que denegaba la aprobación definitiva del Estudio de detalle de la actuación aislada 112.01 Sostoatarren nº 14.

Dicha sentencia tiene carácter estimatorio, y declara nulo el acuerdo plenario, considerando aprobado el Estudio de Detalle con carácter definitivo, en los términos y con las condiciones aprobadas por la Comisión de Trabajo de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente, del Ayuntamiento de Eibar, de 21 de julio de 2020.

Solicitado informe jurídico al Letrado del

legelariari den Alejandro Castro Ubetagoiena jaunari txosten juridikoa eskatu ondoren, 2022ko martxoaren 10ean eman zuen txostena, eta ondorioztatzen du, bere ustez, ez dagoela epaiaren kontrako kasazio-errekurtsoak aurrera egiteko aukerarik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 71.2 artikulua urratu dela hautemateko, hau da, abusu edo gehiegikeria bat dagoela jurisdikzioan jardutean, hirigintza-planeamenduaren esparruan administrazioaren diskrezio-egintzak deuseztatzean. Azken batean, ulertzen da ez dagoela kasazio-interesik.

Ayuntamiento de Eibar en este procedimiento, D. Alejandro Castro Ubetagoiena, se emite con fecha 10 de marzo de 2022, concluyendo que no existe a su juicio posibilidades de que prospere recurso de casación frente a dicha sentencia para apreciar la vulneración del artículo 71.2 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa, esto es, la existencia de un abuso o exceso en el ejercicio de la jurisdicción a la hora de anular actos discrecionales de la administración en el ámbito del planeamiento urbanístico. En definitiva, se entiende que no existe interés casacional.

Ikusirik Alkatetzaren 2022ko martxoaren 16ko proposamena

Vista la propuesta de Alcaldía de fecha 16 de marzo de 2022.

Ikusirik Idazkaritzaren 2022ko martxoaren 16ko txostena,

Visto el informe de Secretaría de 16 de marzo de 2022.

Kontuan hartuta 2022ko martxoaren 22ko Erakunde, Lurralde eta Lege gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena,

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales de fecha 22 de marzo de 2022,

Udalbatzarrak honako hau erabaki du

El Pleno Municipal adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**LEHENENGOA.-** Ez jartzea kasazio-errekurtsorik Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salan, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren Bigarren Sekzioak Promociones Cesilur SLk jarritako errekurtsoaren inguruan emandako epaiaren aurka, 2020ko uztailaren 27ko Osoko Bilkuraren erabakiaren kontrakoa, 112.01 Sostoatarren 14 jarduketa isolatuaren Xehetasun azterlanaren behin betiko onespena ukatu zuen erabakia.

**PRIMERO.-** No interponer recurso de casación ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Supremo contra la sentencia dictada por la Sección Segunda de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el marco del recurso interpuesto por Promociones Cesilur, S.L., con relación al acuerdo del pleno municipal, de 27 de julio de 2020, que denegó la aprobación definitiva del Estudio de detalle de la actuación aislada 112.01 Sostoatarren nº 14.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau prozedura horretan Eibarko Udalak duen legelariari jakinaraztea, behar diren ondorioak izan ditzan.

**SEGUNDO.-** Notificar el presente acuerdo al Letrado del Ayuntamiento de Eibar en dicho procedimiento, a los efectos oportunos.

**4. “Gipuzkoako odol emaileak” elkarteari Pagaegi kaleko 5aren behean dagoen ondasun higiezinaren doako lagapena egitea.**

**4. Cesión gratuita del bien inmueble sito en la calle Pagaegi número 5 bajo a “Donantes de sangre Gipuzkoa”.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 21 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 21 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Ikusita Alkatetzaren Probidentzia, Pagaegi kaleko 5 behean dagoen lokala Gipuzkoako odol emaileak elkarteari erabiltzen uzteko proposamena egiten eta justifikatzen duena, eta, ikusita baita kontu-hartzaile jaunak, Gizarte Zerbitzuetako arduradunak, udal arkitekto andreak eta udal idazkari jaunak egin dituzten derrigorrezko txostenak, Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 79.2 artikuluan eta Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 109.2 eta 110. artikuluek ezarritakoaren arabera egindakoak.

Vista la Providencia de la Alcaldía de 16 de marzo de 2022 en la que se propone la cesión gratuita a la asociación Donantes de Sangre de Gipuzkoa del local sito en calle Pagaegi nº 5 bajo; y los preceptivos informes emitidos por parte del Interventor de Fondos, Responsable de Servicios Sociales, Arquitecta Municipal y Secretario General, realizados de conformidad con lo dispuesto en el artículo 79.2 del Real Decreto Legislativo 781/1986 de 18 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local, y artículos 109.2 y 110 del Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

Kontuan hartuta 2022ko martxoaren 22ko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena,

Visto el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas Hacienda y Patrimonio de 22 de marzo de 2022,

Udalbatzarrak honako hau erabaki du

El Pleno Municipal adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**AURRENA.-** Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteari Pagaegi kaleko 5 behean dagoen lokal bat erabiltzen uztea.

**PRIMERO.-** Ceder a la asociación Donantes de Sangre de Gipuzkoa el uso de un local sito en el bajo del número 5 de

la calle Pagaegi.

Lagapena 4 urterako izango da eta Lokalen Erabilera Lagatzeko Udal Ordenantzan jasotako baldintzak bete beharko ditu.

La cesión será por un plazo de 4 años y la misma se someterá a las condiciones recogidas en la Ordenanza Municipal de Cesión de Uso de Locales.

**BIGARRENA.-** Lagapen honen espedientea jendaurrean uztea hamabost egunez, alegazioetarako. Epe hori amaitzen denean, alegazioren bat aurkeztuko balitz, Udal Osoko bilkurak emango luke horren inguruko ebazpena; alegaziorik egon ezean, aurreko atalean jasotako lagapena behin betikoz onartutzat joko da.

**SEGUNDO.-** Someter el expediente de la presente cesión a información pública por espacio de quince días para alegaciones, a cuyo término, caso de presentarse alguna alegación, se resolverá sobre la misma por el Pleno, y caso contrario de no presentarse ninguna, se dará por definitivamente aprobada la cesión recogida en el punto anterior.

**HIRUGARRENA.-** Bidezkoak diren gainerako izapideak betetzea eta Jon Iraola Iriondo alkate jaunari lagapen-agiria sinatzeko baimena ematea.

**TERCERO.-** Dar cumplimiento al resto de los trámites procedentes, autorizando al Sr. Alcalde, Don Jon Iraola Iriondo para la firma del documento de cesión.

**5. Eibarko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskina aldatzea.**

**5. Modificación del Anexo del Plan estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Eibar.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 16 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 16 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENTZIOAK: 5 - EH Bildu.

ABSTENCIONES: 5 - EH Bildu.

Kontuan hartuta Kontratazioetarako eta Diru-laguntzetarako Atalaren zuzendariak egindako txostena, 2022ko Aurrekontuan jasotako aurreikuspenetara egokitzeari buruzkoa, Diru-laguntzetarako Eibarko Udalaren Plan Estrategikoaren Eranskina honi erantsitako dokumentuaren arabera aldatzeko proposamena dakarrena.

Vista la propuesta presentada por el Director de la unidad de contratación y subvenciones para la modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones para adecuarlo a las previsiones contenidas en el Presupuesto para el año 2022, según documento adjunto.

Kontuan hartuta 2022ko martxoaren 22ko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena,

Visto el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Cuentas Hacienda y Patrimonio de 22 de marzo de 2022,

Udalbatzarrak honako hau erabaki du

El Pleno Municipal adopta el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**BAKARRA.-** Eibarko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren eranskinaren aldaketa onartzea. (II. Eranskina)

**ÚNICO.-** Aprobar la modificación del Anexo del Plan Estratégico de Subvenciones. (Anexo II)

**6. Eibarko EAJ-PNV udal taldeak aurkeztu duen mozioa garraio publiko guztietan tarifa bateratua ezartzeari buruz.**

**6. Moción presentada por el grupo municipal EAJ-PNV en relación a la implantación de una tarifa unificada en todos los transportes públicos.**

BOZKETAREN EMAITZA: EZ ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: NO APROBADA.

ALDEKO BOTOAK: 6 - Eibarko EAJ-PNV.

KONTRAKO BOTOAK: 10 - PSE-EE (PSOE) (9), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

ABSTENTZIOAK: 5 - EH Bildu.

VOTOS A FAVOR: 6 - Eibarko EAJ-PNV.

VOTOS EN CONTRA: 10 - PSE-EE (PSOE) (9), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

ABSTENCIONES: 5 - EH Bildu.

Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako Mozio hau aurkezten dio Eibarko Udal Batzarrari, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatu dezan, garraio publiko guztietan tarifa bateratua ezartzeari buruz.

El grupo municipal de EAJ-PNV de Eibar presenta la siguiente Moción sobre la implantación de una tarifa única en todos los transportes púbicos a la Junta Municipal de Eibar para su debate y votación en el próximo Pleno.

**ZIOA**

Eibarren hiru garraio zerbitzu publiko daude MUGI sistemaren barruan integratuta: Udalbus, Euskotren eta Lurraldebus. Lehenak soilik herri barneko zerbitzua eskaintzen badu ere, beste biek, inguruko herriekin konektatzeaz gain, egunerokotasuna errazteko eta herrian bertan mugitzeko aukera ere ematen digute. Izan ere, hiriarteko Euskotreneko eta Lurraldebuseko zerbitzuek hiria gurutzatzen dute, eta hiriguneko 3,5km-ko tartean 8 autobus geraleku eta 5 tren geltoki daude, maiztasun handiarekin gainera.

**MOTIVOS**

En Eibar hay tres servicios públicos integrados dentro del sistema MUGI: Udalbus, Euskotren y Lurraldebus. El primero sólo ofrece un servicio urbano, y los otros dos, además de conectarnos con los pueblos de alrededor, nos permiten facilitar el día a día y también movernos dentro de Eibar. De hecho, los servicios de Euskotren y Lurraldebus interurbanos cruzan la ciudad, y en el tramo de 3,5 km del casco urbano hay 8 paradas de autobús y 5 estaciones de tren, y, además, con una gran frecuencia.

Horrela, bada, eibartar askok herri arteko zerbitzu horiek erabiltzen dituzte hiriko puntu batetik beste batera joateko. Beraz, Udalbusak eskaintzen duen zerbitzuaren osagarri dira Euskotren eta Lurraldebuseko zerbitzuak. Hala ere, garraio operatzaile horien guztien tarifak ez dira berdinak. Izatez, MUGI sistemak hori bermatu nahi du: "*erabilitako garraiobidea edozein dela ere, tarifa bera ordaintzea puntu batetik beste batera joatean*". Haatik, sistema ez dago ondo, eta ez da hori gertatzen. Eibartar batek Udalbus zerbitzua erabiltzeagatik 1'35 euro ordaintzen ditu, eskudirutan ordainduz gero; MUGI pertsonalizatuarekin, aldiz, lehenengo 20 bidaietan, 0'70 euro. Euskotren edo Lurraldebuseko zerbitzuak erabiliz herriko puntu batetik beste batera bidaiatuko balu, ordea, 1'85 euro, eskudirutan ordainduz gero; MUGI pertsonalizatuarekin, aldiz, lehenengo 20 bidaietan, 0'96 euro.

Muchos eibarreses y eibarresas utilizan esos servicios para ir de una punta de la ciudad a otra. Por tanto, Euskotren y Lurraldebus son complementarios del servicio que ofrece Udalbus. Y las tarifas de todas esas operadoras no son las mismas. El sistema MUGI quiere garantizar el precio único: "sea cual sea el medio de transporte utilizado, que se paga la misma tarifa para ir de un punto a otro". Pero el sistema no está bien y no ocurre eso. Un persona de Eibar abona 1 '35 euros por utilizar el servicio Udalbus, si paga en efectivo; mientras que con el MUGI personalizado, en los 20 primeros viajes, paga 0' 70 euros. En caso de viajar de una punta a otra de la localidad utilizando los servicios de Euskotren o Lurraldebus, 1'85 euros si se paga en efectivo; mientras que con el MUGI personalizado en los 20 primeros viajes paga 0' 96 euros.

Horrenbestez, herri barnean mugitzeko zerbitzu publikoa eskaintzen dituzten operatzaileek ez dituzte tarifa berberak, eta horrek kalte zuzenak eragiten dizkie eibartarrei. Herri barnean egiten diren bidaia guztietan, edozein garraiobide erabiltzen dela ere, tarifa bera ordaindu beharko litzateke; hau da, Udalbus tarifa garraiobide guztietan (1'35 € eskudirutan,

Está claro, por tanto, que los operadores que prestan un servicio público de movilidad urbana no tienen las mismas tarifas, lo que perjudica directamente a los eibarreses. En todos los viajes que se realicen dentro de la localidad, independientemente del medio de transporte utilizado, debería abonarse la misma tarifa; es decir, la tarifa Udalbus en todos los medios de transporte (1 '35 € en

edo 0,70 € Mugi txartelarekin, bestela jaso ditzaketen deskontu eta hobariez gain).

metálico o 0,70 € con la tarjeta Mugi, además de otros descuentos y bonificaciones que puedan recibirse).

Ildo horretan, Eibarko Udala kide den Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak aurrez aipaturiko tarifak erabaki eta ezartzeko xede eta betebeharra du. Izan ere, erakunde hori da Gipuzkoako garraio publikoko tarifikazioa eta txartel bakarra kudeatzen dituena; MUGI izenez ezagutzen den sistema, alegia. Gainera, GGLAko estatutuen arabera, haren ardura dira garraio-sare bakarra eta osoa sustatzea; garraioaren erabilera bultzatzeko eta suspertzeko asmotan, erabiltzailearen eskura ahal den eskaintzarik onena jartzea, zerbitzuak, sareak eta tarifak koordinatuz; eta baliabide publikoak eta pribatuak optimizatzea, garraio-mota desberdinen arteko jardutea bultzatzeko. Hortaz, Eibarko Udala GGLAko kide izanik, gaitasuna du aldaketa horiek proposatu, landu eta lortzeko.

En ese sentido, la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, a la que pertenece el Ayuntamiento de Eibar, tiene por objeto y obligación la determinación e implantación de las tarifas anteriormente citadas. De hecho, es esta entidad la que gestiona la tarificación del transporte público y el billete único de Gipuzkoa, el sistema más conocido como MUGI. Además, de acuerdo con los estatutos de la ATTG, es su responsabilidad promover una red de transporte única y completa; poner a disposición de los usuarios y usuarias la mejor oferta posible para impulsar y estimular el uso del transporte, coordinando servicios, redes y tarifas; y optimizar los recursos públicos y privados para favorecer la actuación entre los diferentes modos de transporte. Por tanto, El Ayuntamiento de Eibar siendo miembro de la ATTG tiene capacidad para proponer, trabajar y lograr esos cambios.

Garraiobide publiko guztietako tarifak berdintzeak Eibar barneko joan-etorrien mugikortasun iraunkorraren aldeko apustua egiten du; garraio publikoaren suspertzea eta indartzea klima aldaketaren aurkako eta ekologiaren aldeko berebiziko tresna baita, eta

La unificación de las tarifas de todos los medios de transporte público apuesta por la movilidad sostenible de los desplazamientos internos de Eibar, como herramienta fundamental para la revitalización y potenciación del transporte público frente al cambio

pertsona guztien gizarte kohesiorako lanabes eraginkorra ere bai.

climático y a la ecología, y como herramienta eficaz para la cohesión social de todas las personas.

Lurraldebuseko eta Euskotreneko egungo zerbitzuek eibartarrei zerbitzu egokia eskaintzen badiete, horien optimizazioaren alde egin beharra dago, Udalbusak ez ditzan zerbitzu horiek bikoiztu, baizik eta osatu. Hain zuzen ere, bikoiztasuna ez sortzea kontuan izan du Eibarko Udalak udal autobus zerbitzua berrantolatzeko orduan, baina hori benetan eman dadin, beharrezkoa da sistemak koordinatzea eta bateratzea; eta guztien arteko bateratze bat sustatzea, MUGI sistemako tarifa-sistema bateratuari eutsiz.

Si los actuales servicios de Lurraldebus y Euskotren ofrecen un servicio adecuado a los eibarreses y eibarresas, hay que apostar por su optimización para que Udalbus no duplique estos servicios, sino que los complemente. Precisamente, el no crear duplicidades ha sido un factor que se ha tenida en cuenta por el Ayuntamiento de Eibar a la hora de reordenar el servicio municipal de autobuses, pero para su efectiva prestación es necesario coordinar y unificar los sistemas; y promover una confluencia entre todos manteniendo el sistema tarifario unificado del sistema MUGI.

Horregatik guztiagatik, Eibarko EAJ-PNVk ondorengo akordio hauek proposatzen ditu, Udalbatzarrak hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatu ditzan:

Por todo ello, EAJ-PNV de Eibar propone los siguientes acuerdos para su debate y votación por la Corporación en el próximo Pleno Municipal:

**AKORDIO PROPOSAMENAK**

**PROPUESTA DE ACUERDO**

1. Eibarko Udalak hauxe defendatzen du irmoki: Eibarren kokaturiko geralekuen artean burutzen diren bidaia guztietan, erabiltzen den garraiobide publikoa edozein dela ere (Taxibus, Udalbus, Euskotren edota Lurraldebus),

1. El Ayuntamiento de Eibar defiende firmemente que en todos los viajes que se realicen entre paradas ubicadas en Eibar, cualquiera que sea el medio de transporte público que se utilice (Taxibus, Udalbus, Euskotren o Lurraldebus), es necesario

beharrezkoa da gaur egungo MUGI sistemako 3. herribuseko tarifa kobratzea.

cobrar la tarifa 3ª de herribus del actual sistema MUGI.

2. Eibarko Udalak modu formalean eskaera egingo dio Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritzako presidenteari, tarifa sistema hori —edozein garraiobide publiko erabili arren, herri bereko geltokien arten egiten diren bidaietan herribuseko tarifa kobratzearena— Gipuzkoa osoan ezartzeko; GGLA baita Gipuzkoako tarifa sistemak ezartzeko gaitasuna duen erakundea.

2. El Ayuntamiento de Eibar solicitará formalmente al presidente de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa la implantación de este sistema tarifario —cobrar la tarifa de herribus, sea cual sea el medio de transporte utilizado, en los viajes que se realicen entre paradas dentro de la misma localidad— en todo el territorio de Gipuzkoa, ya que es la ATTG el organismo competente para la implantación de los sistemas tarifarios de Gipuzkoa.

3. GGLAko Batzar Orokorrean gaia eztabaidatzeko eskaera zuzena eta formala egingo du Eibarko Udalak; eta sistema honen alde bozka emango du bertan ordezkaritza duen udal ordezkariak.

3. El Ayuntamiento de Eibar solicitará de forma directa y formal que se debata el tema en la Asamblea General de la ATTG, y el representante municipal en la misma votará a favor de este sistema.

4. GGLAk ukatu egingo balu Eibarko Udalak proposaturiko tarifa sistema Gipuzkoa osoan ezartzea, eta ez balu bestelako irtenbiderik eskainiko, Eibarko Udalak, dituen baliabideak medio, neurriak edo dirulaguntzak ezarriko ditu Eibarren garraiobide guztietan egiten diren bidaietan tarifa bera kostatzeko.

4. En el supuesto de que la ATTG denegara la implantación del sistema tarifario propuesto por el Ayuntamiento de Eibar en toda Gipuzkoa, y no ofreciera soluciones alternativas, el Ayuntamiento de Eibar, por los medios de que disponga, establecerá medidas y/o subvenciones para que el coste sea el mismo en los viajes que se realicen en Eibar en todos los medios de transporte.

5. GGLAk bestelako irtenbiderik eman ezean, Eibar-Eibar arteko bidaiak egitean, MUGI txartela erabiltzen duten erabiltzaile guztiei konpentsatuko zaie ordaintzen duten prezio gehigarria, inolako diskriminazio edota bereizketarik egin gabe.

5. A falta de otra solución por parte de la ATTG, en los viajes entre Eibar-Eibar, a todos los usuarios y usuarias que utilicen la tarjeta MUGI se les compensará el precio adicional que abonen, sin discriminación o diferencia alguna.

Jarraian, eta aurkeztutako mozio alternatiboen urgentziazko aitorpena bozkatu aurretik, Telleria andreak, PSE-EE taldeko (PSOE) bozeramaileak, iragarri du bere taldeak erretiratu egingo duela martxoaren 22an aurkeztu zuen mozio alternatiboa.

Seguidamente, y antes de someter a votación la declaración de urgencia de las mociones alternativas presentadas, la portavoz del Grupo PSE-EE (PSOE), Sra. Telleria, anuncia que su grupo retira la moción alternativa que presentó el 22 de marzo.

**GAI-ZERRENDATIK KANPO**

**FUERA DEL ORDEN DEL DÍA**

Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta urgentziazko aitorpena egin ondoren, aho batez berretsia, honako gai hauek aztertu dira:

De acuerdo con lo previsto en el artículo 82.3 en relación con el artículo 138 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y previa declaración de urgencia ratificada por unanimidad, se pasan a tratar los siguientes asuntos:

**A) PSE-EE (PSOE) ETA EH BILDU UDAL TALDEEK AURKEZTU DUTEN ERDIBIDEKO MOZIOA.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 20 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 1 Elkarrekin Eibar-Podemos.

**ERDIBIDEKO MOZIOA, MUGI TARIFA-EREDUA BABESTEARI ETA SUSTATZEARI BURUZKOA ETA MUGI SISTEMAREN TARIFAK SOZIALAGOAK ETA MERKEAGOAK IZATEKO NEURRIAK HARTZEARI BURUZKOA.**

MUGI tarifa-sistema Gipuzkoako tarifa-eredua da 2013tik, sortu zen urtetik, eta Gipuzkoako indar politiko gehien-gehienen babesa du, bai eta MUGI sisteman integratuta dauden eta garraio publikoaren arloan eskumenak dituzten erakundeena ere. MUGI tarifa-ereduak gure garraio publikoaren eredua sistema ekologiko, sozial eta demokratikoa izaten laguntzen du, Gipuzkoako herritar guztien

**A) MOCIÓN ALTERNATIVA PRESENTADA POR LOS GRUPOS PSE-EE (PSOE) Y EH BILDU.**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 20 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (5).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 1 Elkarrekin Eibar-Podemos.

**MOCION ALTERNATIVA SOBRE APOYO Y FOMENTO DEL MODELO TARIFARIO DE MUGI Y ADOPCION DE MEDIDAS PARA HACER MÁS SOCIALES Y ECONÓMICAS LAS TARIFAS DEL SISTEMA MUGI.**

El sistema tarifario MUGI es el modelo tarifario de GIpuzkoa desde el año 2013, en que se constituye, y cuenta con el apoyo de la inmensa mayoría de las fuerzas políticas guipuzcoanas, así como de las instituciones competentes en materia de transporte público integradas en el sistema MUGI. El modelo tarifario de MUGI, que hace de nuestro modelo de transporte público, un sistema ecológico,

batasun- eta kohesio-elementua da eta alderdi politikoen artan inoiz ez bezalako adostasuna du, Gipuzkoako herritarren mugikortasunerako oinarrizko eskubidea bermatzen duen zerbitzu publikoaren eredu gisa.

social y democrático, es un elemento de unión y cohesión de toda la ciudadanía guipuzcoana, y de consenso sin precedente entre los partidos políticos, como modelo de servicio público que garantiza el derecho fundamental de movilidad de la ciudadanía guipuzcoana.

MUGI tarifa-eredu hau 2013an abian jarritako sistema bateratu bat da, Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzak kudeatzen du eta txartel bakar integrala dela esan daitekeen Euskadiko, Espainiako eta Europako tarifa-eredu bakarra da; izan ere, 2013tik Gipuzkoako garraio-operadore publiko guztiak daude integratuta garraio publikoa planifikatzeko eta koordinatzeko GGLA organo bakar horretan, eta gure tarifa-ereduaren bereizgarririk ahaltsuena ere jarri zuen abian: garraiorako gure MUGI TXARTELA ezartzen duen eta gure tarifa-eredua ahalduntzen duten tarifak integratzeko sistema.

Este modelo tarifario de MUGI es un sistema unificado que se puso en marcha en el año 2013, gestionado por la Autoridad del Transporte de Gipuzkoa, y se constituye en el único modelo tarifario de Euskadi, España y Europa del que puede decirse es un billete único integral, puesto que – desde ese año 2013 todos los operadores públicos de transporte de Gipuzkoa se integraron en ese único órgano, la ATTG, de planificación y coordinación del transporte público, poniendo en marcha también el distintivo más poderoso de nuestro modelo tarifario: el sistema de integración tarifario que implanta nuestra tarjeta de transporte la TARJETA MUGI, y empodera nuestro modelo de tarifas.

Eta guztiak esaten dugunean, tarifa-eredu bakarrarekin konpromisoa hartuta duen garraiobide guztiak direlako esaten dugu, inor baztertu gabe eta salbuespenik gabe: errepide-garraio publikoaren zerbitzu guztiak, bai hiriartekoak (Lurraldebus eta ibilbide luzekoak), bai hiri barrukoak (Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz,

Cuando decimos todos, es porque son todos, sin exclusiones ni excepciones, los medios de transporte que se comprometen con un único modelo tarifario: todos los servicios de transporte público por carretera, tanto interurbanos (Lurraldebus y largo recorrido), como urbanos (Donostia, Irún, Errenteria, Eibar,

Arrasate, Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Oñati eta Tolosa), bai eta tren-garraio publikoak ere (Euskotren eta Renfe-ren aldiriak).

Zarautz, Arrasate-Mondragón, Hernani, Lasarte-Oria, Oiartzun, Oñati y Tolosa) y también los medios de transporte público ferroviarios (Euskotren y Renfe Cercanías).

Gipuzkoarrok txartel bakarrarekin bidaiatzen dugu Gipuzkoako garraiobide guztietan. Baina gure tarifa-ereduak ez duenez mugarik izan nahi, Araba osoan ere erabil daiteke balioko ordainketa-modu gisa, eta laster, Bizkairaino iritsiko gara. Gipuzkoako jende asko bizi da lurralde horretan –bertan ikasten edo lan egiten dutelako–, eta badira arrazoi berberengatik egunero Lurraldebus erabiltzen dutenak eta garraiobide jendetsu horretan euren MUGI txartela erabili nahi dutenak ere.

Los y las guipuzcoanos viajamos en todos los medios de transporte con una única tarjeta en Gipuzkoa. Pero como nuestro modelo tarifario no quiere tener fronteras, también puede usarse como medio de pago válido en toda Araba, y próximamente, llegaremos hasta Bizkaia. Son muchas las personas de Gipuzkoa que residen allí - por estudios o trabajo - cuando no viajan diariamente con Lurraldebus por idénticos motivos y quieren usar su MUGI en este medio de transporte masivo.

Gipuzkoako tarifa-eredu horren erabilpena hedatu ahal izatearen arrazoia da MUGI erabiltzen duten pertsonen komunitatea Gipuzkoako biztanleen ia % 80ko fidelizaziora iristen dela, eta, horren ondorioz, MUGI tarifa-eredu bakarra da –tarifa-integrazioari esker– eredu sozial eta bidezkoa izateko baldintza guztiak betetzen dituena, ekologikoa izateaz gain.

Esta expansión de uso del modelo tarifario de Gipuzkoa es posible gracias a que la comunidad de personas usuarias de MUGI llega hasta casi un 80% de fidelización de la población guipuzcoana y hace de MUGI el único modelo tarifario que -gracias a la integración de tarifas- tiene todos los condicionantes para ser un modelo social y justo, además de ecológico.

MUGI tarifa-ereduarekin:

Con el modelo tarifario de MUGI:

1. Erabiltzen duzuna bakarrik ordaintzen duzu.

2. Zenbat eta gehiago erabili, gutxiago ordaintzen duzu.

3. Eta, gainera, ekitatea bermatzen du gizarte-babesa izateko premiarik handiena duten kolektiboei egiten zaizkien hobariekin: adinekoei, gazteei, langabetuei, baliabide gutxi dituzten pertsonei edo gaitasun bereziak dituztenei.

MUGI tarifa-ereduarekin nahi duzun lekura eta nahi duzun bezala bidaiatu dezakezu, non bizi zaren eta zenbat baliabide dituzun kontuan hartu gabe. MUGI tarifa-ereduak ez ditu gizarte-aurrerapenetik kanpora uzten baliabide gutxi dituzten pertsonak. Garraio publikoaren erabiltzaile normal batek badaki MUGI zerbitzuarekin zenbat eta bidaia gehiago egin, orduan eta merkeagoa dela.

Gipuzkoarrok MUGI KOMUNITATEKIDE izaten jarraitu nahi dugu, erakutsi izan dugun moduan, tarifa merkeekin eta sozialekin. COVID 19ak eragindako pandemia osteko krisi bete-betean, gutxien duten pertsonei sufrimendua eragiten dien tentsio-giro sozial eta ekonomiko honetan, eta gobernuen ekonomia eta, batez ere, Gipuzkoako gizon-emakumeen eta familien ekonomia hankaz gora jartzen ari den gerra-agertoki

1. Sólo pagas por lo que usas

2. Cuanto más lo usas, menos pagas.

3. Y además garantizas la equidad con grandes bonificaciones a los colectivos con mayor necesidad de protección social: personas mayores, jóvenes, desempleadas, de menos recursos y con capacidades especiales.

Con el modelo tarifario MUGI viajas donde quieras, como quieras, con independencia de lugar de residencia y de cuantos recursos tengas. MUGI es el modelo tarifario que no deja a las personas que menos tienen excluidas del progreso social. De un conocimiento a nivel usuario normal del transporte público se sabe que, con MUGI, cuanto más viajas, más barato lo haces.

Las y los gipuzkoanos queremos seguir perteneciendo a la COMUNIDAD MUGI con tarifas, como hemos demostrado, baratas y sociales. En plena crisis post pandemia por la COVID 19, con la tensión social y económica haciendo sufrir a las personas que menos tienen, y con un escenario de guerra que esta convulsionando la economía de gobiernos, pero sobre todo de mujeres, hombres y familias de Gipuzkoa,

honetan, MUGI sistema babesten jarraitu nahi dugu, garraio publikoaren erabiltzaileei lasaitasuna emanez. Eta, bestetik, uste dugu iritsi dela MUGI SISTEMAREN tarifen ekitatean eta justizian oraindik ere gehiago sakontzeko unea, familien ekonomia ito edo zaildu dezaketen une latzen aurrean.

queremos seguir protegiendo el sistema MUGI, dando tranquilidad a las personas usuarias del transporte público. Pero, además, entendemos que ha llegado el momento de profundizar aún más en la equidad y justicia de las tarifas del SISTEMA MUGI ante los momentos difíciles que pueden ahogar o dificultar las economías familiares.

Horregatik, tarifa are sozialagoak eta, beraz, progresiboagoak egitearen alde gaude; eta uste dugu 2022an, Gipuzkoako Garraioaren Agintaritzan MUGIrako tarifak eztabaidatzen eta erabakitzen direnean, tarifa-eredu horretan beste urrats bat emateko unea izango dela

Es por ello que nosotros defendemos hacer unas tarifas aún más sociales, y, por tanto, más progresivas; y creemos que en este año 2022, cuanto se produzca el debate y decisión de las tarifas para MUGI es el momento de dar un paso más en este modelo tarifario de Mugi para lograr ese objetivo.

Eibarko Udalak irmotasunez defendatzen du garraio publikoaren sistema inoiz baino gehiago indartzeko unea dela, pandemian galdu dituen erabiltzaileak berreskuratzeaz eta erabiltzaile berriak sisteman sartzeaz gain; eta horretarako, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza osatzen duten administrazioek beharrezko neurri guztiak aztertu beharko lituzkete. Hain zuzen, GGLAren egitekoa da mugikortasun irisgarria eta kalitatezkoa bultzatzea gizartearentzat eta lurralde historikoan zehar, egungo eta etorkizuneko eskaerari erantzunez.

El Ayuntamiento de Eibar defiende firmemente que es el momento de reforzar más que nunca el sistema de transporte público, además de recuperar a los usuarios que ha perdido durante la pandemia, de incorporar nuevos usuarios al sistema y para ello habría que estudiar todas las medidas necesarias por parte de las administraciones que forman parte de la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. De hecho, la ATTG tiene la misión de impulsar una movilidad accesible y de calidad para la sociedad y a lo largo del territorio histórico, atendiendo tanto a la demanda actual como a la futura.

Azaldutako guztiagatik, azpian sinatzen duten Eibarko Udaleko Udal Taldeek erabaki hauek hartzeko proposamena egiten diote Udal Osoko bilkurari:

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari, tarifak berritzean eztabaidatu eta, hala badagokio, onartzeko, neurri hauek eskatzea:

a) Garraio publikoaren erabiltzaile ohikoenen kostua benetan murrizten laguntzeko.

- Egin daitekeen tarifa-jaitsiera eta horrek izan ditzakeen ondorioen azterketa erabakitzea eta, horren aurrean, gutxienez, hurrengo ekitaldi bietan tarifen prezioak bere horretan uztea, ez daitezen garraio publikoaren erabiltzaileak izan euren soldatekin energiaren eta erregaien igoerak eragin dituzten krisiei eta Gipuzkoako gizartea jasaten ari den inflazio altuari aurre egiten diotenak.

- MUGIko deskontuen sistema aldatzea, horren progresibitatean eta gizarte-justizian sakontzeko, eta laugarren tarte bat sartzea, MUGI txartelaren

Por todo lo expuesto, los Grupos Municipales abajo firmantes en el Ayuntamiento de Eibar proponen al Pleno de la corporación los siguientes acuerdos:

Solicitar a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, para su debate y aprobación, en su caso, en el momento de próxima renovación de tarifas las siguientes medidas:

a) Para ayudar a una bajada efectiva del coste para las y los usuarios más habituales del transporte público

- Acordar el estudio de la posible bajada de tarifas, y los efectos que esta pudiera tener, y a la vista del mismo, como mínimo establecer el mantenimiento de los precios de tarifas en los dos próximos ejercicios con el objetivo de imposibilitar en cualquier caso que sean las personas usuarias del transporte público las que afronten con sus sueldos las crisis que han provocado la subida de energía y combustible, y la fuerte inflación que afecta a la sociedad guipuzcoana.

- Aprobar la modificación del sistema de descuentos de MUGI, para ahondar en su progresividad y justicia social, incluyendo un cuarto tramo, lo que dará a las

erabiltzaileek doakotasun handiagoa izan dezaten MUGI txartela erabiltzen den tarte guztietan.

personas usuarias de MUGI mayor gratuidad en todos los tramos de uso de la tarjeta MUGI.

b) Aurrera jarraitzea MUGI sistemaren tarifa-ereduaren misio soziala aztertzen, bereziki zaurgarriak diren gizarte kolektibo berriak sartuz.

b) Avanzar en la misión social del modelo tarifario del sistema MUGI, con la inclusión de nuevos colectivos especialmente vulnerables.

c) Eibarko Udalak Gipuzkoako garraio-sistemako zerbitzu guztiak berreskuratzearen aldeko apustua egiten du, baita erabiltzaileak gutxitzearen edo beste edozein erabakirengatik estualdian daudenenak ere. Horretarako, RENFEren aldiriko zerbitzuetan gertatzen ari den egoera arintzeko neurriak aztertzearen aldeko apustua egiten du.

c) El Ayuntamiento de Eibar apuesta por la recuperación de todos los servicios en el sistema de transporte de Gipuzkoa, incluso aquellos que se han visto comprometidos por la disminución de usuarios o de cualquier otra decisión, apostando por el estudio de medidas que ayuden a paliar la situación que se está dando en el servicio de cercanías de RENFE.

d) Eibarko Udalak GGLAri eskatzen dio behar bestean zabal dezala bere garraio-eskaintza erabiltzaile guztien eskariei erantzuteko.

d) El Ayuntamiento de Eibar insta a la ATTG a ampliar su oferta de transporte tanto como sea preciso para atender las demandas de todos los usuarios y usuarias.

e) Kontuan izanda honek guztiak Gipuzkoako garraio publikoaren tarifa-sistemaren kostuak handitu ditzakeela, Eibarko Udalak

e) Siendo conscientes de que todo esto puede suponer un incremento en los costes del sistema tarifario del transporte público de Gipuzkoa, el

Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Errepideen Foru Sareko bidesariei lotutako tarteetan bildutako diruaren zati bat honetara zuzen dezala eta aktiba dezala martxoaren 29ko 1/2011 Foru Arauaren Bigarren Xedapen Gehigarria, zazpigarren tituluan eta horren garapenerako Dekretuan jasoa, garraio publikoa sustatzeko helburuz.

Ayuntamiento de Eibar insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que revierta parte de lo recaudado en los tramos sujetos a peaje de la Red Foral de Carreteras y active la Disposición Adicional Segunda de la Norma Foral 1/2011 de 29 de marzo incorporada en el título séptimo y de su Decreto de desarrollo, con el objetivo de fomentar el transporte público.

**B) ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS TALDEAK AURKEZTU DUEN ERDIBIDEKO MOZIOA.**

BOZKETAREN EMAITZA: EZ ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 7- Eibarko EAJ-PNV (6), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

KONTRAKO BOTOAK: 9 - PSE-EE (PSOE).

ABSTENTZIOAK: 5 - EH Bildu.

Elkarrekin Podemos - IU Ezker Anitza – Equo Berdeak Eibar koalizioak mozio alternatiboa aurkeztu du osoko bilkuran eztabaidatzeko eta, hala bada kasua, onartzeko , Eibarko EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutakoaren aurrean.

**B) MOCIÓN ALTERNATIVA PRESENTADA POR ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS.**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: NO APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 7- Eibarko EAJ-PNV (6), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

VOTOS EN CONTRA: 9 - PSE-EE (PSOE).

ABSTENCIONES: 5 - EH Bildu.

La coalición Elkarrekin Podemos - IU Ezker Anitza – Equo Berdeak Eibar presenta moción alternativa a la presentada por el grupo municipal Eibarko EAJ – PNV para su debate en pleno y, si procede, su aprobación:

**ERDIBIDEKO MOZIOA GARRAIO PUBLIKO OSOAN TARIFA BATERATUA EZARTZEAREN AURREAN**

1. Eibarko Udalak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari eskatzen dio MUGI txartelaren tarifak 2022. urte osoan mantentzeko.

2. Eibarko Udalak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari eskatzen dio tarifa murrizteko aukera azter dezala. Horretarako, besteak beste, Bidegiren diru-bilketaren ehuneko bat erabil liteke, 1/2011 Foru Dekretuaren 2. xedapen gehigarriak jasotzen duen bezala, garraio publikoa sustatzeko xedez.

3. Eibarko Udalak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari eskatzen dio tarte berri bat sortzeko MUGI txartelean, garraio publikoa gehien erabiltzen dutenei hobariak emateko eta gehiago erabiltzera bultzatzen jarraitzeko.

4. Eibarko Udalak Gipuzkoako Garraio Agintaritzari eskatu dio MUGI sistemaren tarifa-ereduaren misio soziala aztertzen jarraitzeko, bereziki kalteberak diren gizarte-kolektibo berriak sartuz.

**MOCIÓN ALTERNATIVA A LA IMPLANTACIÓN DE UNA TARIFA UNIFICADA EN TODO EL TRANSPORTE PÚBLICO**

1. El Ayuntamiento de Eibar insta a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa a mantener durante todo el año 2022 las tarifas de la tarjeta MUGI.

2. El Ayuntamiento de Eibar insta a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa a que estudie una posible reducción de tarifa. Para ello se podría destinar, entre otros, un porcentaje de la recaudación de Bidegi, tal y como recoge la Disposición Adicional 2ª del Decreto Foral 1/2011, con el fin de fomentar el transporte público.

3. El Ayuntamiento de Eibar insta a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa a crear un nuevo tramo en la tarjeta MUGI para bonificar a quienes más utilizan el transporte público, y seguir incentivando su mayor uso.

4. El Ayuntamiento de Eibar insta a la Autoridad del Transporte de Gipuzkoa a seguir estudiando la misión social del modelo tarifario del sistema MUGI, con la inclusión de nuevos colectivos sociales especialmente vulnerables.

5. Eibarko Udalak salatu egiten ditu Gipuzkoako garraio-sistemaren zerbitzuetan eman diren eta ematen ari diren murrizketak, erabiltzaileen gutxitzea edo beste edozein arrazoi dela kausa.

5. El Ayuntamiento de Eibar denuncia las restricciones que se han dado y se están dando en la prestación de servicios en el sistema de transporte de Gipuzkoa debidas a la disminución de personas usuarias o a cualquier otra decisión.

6. Eibarko Udalak hitz ematen du garraio publikoaren erabilera indartzeko dauden kanpainak aztertu eta sustatuko dituela, erabiltzaileak erakartzeko eta pandemiaren edo edozein motatako garraio publikoaren funtzionamendu eskasaren ondorioz haien erabilera alde batera utzi dutenak berreskuratzeko.

6. El Ayuntamiento de Eibar se compromete a estudiar la reforzar las campañas existentes para reforzar el empleo del transporte público con el objetivo de atraer personas usuarias y recuperar a quienes debido a la pandemia o el funcionamiento deficitario de cualquier tipo de transporte público hayan dejado de lado su uso.

7. Eibarko Udalak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari eskatzen dio azterlan orokor bat egiteko ibilbide berean garraiobide publikoen desberdinen artean tarifa bakarra ezartzeari buruz.

7. El Ayuntamiento de Eibar insta a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa a realizar un estudio a nivel global sobre la implantación de una tarifa única entre los diferentes medios de transporte público en un mismo recorrido.

**8. Galderak eta erreguak.**

**8. Ruegos y Preguntas.**

Eta, eztabaidatzeko beste gairik ezean, eta gaueko bederatziak hogeita bost gutxi izanik, Alkate-Udalburu jaunak amaiera eman dio Osoko Bilkurari, eta nik,

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veinte horas treinta y cinco minutos, el Sr. Alcalde-Presidente levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

Idazkari Orokor naizen honek, horren fede
eman dut.

O.I. / Vº Bº

ALKATE UDALBURUA/

EL ALCALDE-PRESIDENTE,

Jon Iraola Iriondo

IDAZKARIA/ EL SECRETARIO

Juan Agustín Villafranca Bellido